

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

BF858BH matrikulako ibilgailu abandonatuaren hondar-tratamendua

BF858BH ibilgailua duela bi hilabete baino gehiagotik kendu zen bide publikotik, eta udal-biltegietan gordeta jarraitzen du. Nahitaezko kudeaketak eta jakinarazpenak egin ondoren, jabeak ez dira ibilgailua jasotzera joan, erretiratzeko eta biltegian egoteko zerbitzua emateagatik sortutako tasak ordaindu ondoren.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 59-4 eta 61. artikuluetan ezarritakoaren arabera (1992ko azaroaren 27ko BOE), jakinarazpena egiten zaio jabeari iragarki honen bidez.

Jabea edo haren legezko ordezkaria udal-bulegoetara joan beharko dira, gordailutzeagatik eta zaintzagatik inolako kopururik sor ez dezan eta txatarra gisa saldu ez dadin.

Jabeak bere ibilgailuari udal honen alde uko egiteko asmoa badu, udal-bulegoetatik igaro beharko du 15 eguneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zerrendatzen den ibilgailuak bi hilabete baino gehiago daramanez udal-biltegian, apirilaren 21eko 11/1999 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, jabeek honako hau jakinarazten zaie:

Hamabost egun igarotzen badira, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, adierazten den ibilgailua hiri-hondakin solidotzat hartuko da.

Alegría-Dulantzin, 2026ko uztailaren 22an

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA